



EUS CAS

Bilatu

Bilatu

Hasiera | Etorri | Ezagutu | Bizi | Gida praktikoa

HOME > Ezagutu > Ezagutu historia > Hirigune historikoa

HIRIGUNE HISTORIKOA

Ezagutu Hernaniko hirigune historikoa. Bere garaian harresiz inguratutiko herria, gaur egun garai hartako hainbat etxe ikusteko aukera duzu.



Deskargatu plana PDF formatuan

Historikoki Hernani izendapen geografiko gisa, lehen aldiz, 1014ko dokumentu batean azaldu zen. Herria, XIII. mendearen erdialdean sortu zen.

Harresiz inguratutako herria izan zen, eta bost sarrera ate zituen. Itxura obalatua zuen bertan sortutako gune itxiak. Bere sorreran bi kalek bakarrik osatzen zuten Alde Zaharra: Kale Nagusiak eta Kardaberaz kaleak.

Herriaren erdigunean, bi kaleen artean, gune ireki bat geratu zen; historikoki, merkaturia egin izan den gunea eta Plaza Berria izenaz ezagutua.

Erdigunearen zatirik altuenean beste gune ireki bat osatu zen: Gudarien Plaza.

Gaur egun, enparantza honen sarrera arkuari loturik, Udaletxea eta San Joan Bautista parrokia kokatzen dira.


Hernaniko Alde Zaharrak, Erdi Aroko kale eta eraikin gehienak mantentzen ditu.

Hernaniko hirigune historikoa Euskal Herriko interes historiko-artistikodun guneeetako bat dugu.

BISITA GIDATUA HIRIGUNEAN

Erdi Aroko Hernani ezagutu nahi? Gidaren azalpenak garai hartara eramango zaituzte: armariak, dorretxeak, garaiko gizartearen bitxikeriak...

[Gehiago irakurri](#)



**AIERDI ARRETXEA.
KALE NAGUSIA, 2**

Kale Nagusia, 2 XVIII. mendeko oinplano angeluzuzeneko eraikina da. 1928an solairu bat gehiago eman zitzaion Luis Elizalderen proiektua jarraiki. Ezaugarri bereziena armarrria da.

**SAN JOAN
BATAIATZAILEAREN
PARROKIA-ELIZA**

Nabe bakarreko eliza honek gurutze latindarreko oinplanoa eta abside poligonal (oktagonala) ditu. Aldarea aipatutako absidean dago eta gurutzaduraren besoetan bi kapera ditu. Elizaren barrualdea barroko estilokoa da. elizak oinplano karratua duen dorre bat du, eta ondoan dagoen eraikinari atxikita dago (udaletxeari). Esferaerdiko kupula bat du goian. sakristia absideari erantsitako atala da eta nabearen zabalera bera du. Absidearen eta gurutzaduraren iparraldeko besoaren artean, oinplano karratua duen kapera bat dago. harrizko harmaila eder batzuek plazara eramaten gaituzte (portada monumental). elizan garrantzi handiko osagai historiko-artistikoak topa daitezke, hala nola, erretaula nagusia, santutegia, juan urbietaren hilobia, organoa, etab. eliza eraikitzeko lanak 1548. Eta 1595. Urteen artean egin ziren, domingo olozagaren, miguel beramendiren eta ignazio izagirreren gotiko berantiarrari jarraiki. 1610ean, sakristia eraiki zen, fray miguel aranbururen diseinua kontuan hartuz. Portada barrokoa martin zaldwarena da eta 1708an egin zen. Kanpandorreko dorrea 1764an bukatu zen eraikitzen eta francisco iberorena da.

GUDARIEN PLAZA, 7

XIX. Mendeko eraikuntza da. Oinplano angeluzuzenekoa. Aurrealdeak bi armarrri ditu.

PROPOSAMENAK



Pakete turistikoa: Hernani, erdi aroa, sagardoa

Erdi Aroko Hernani ezagutzeko aukera paregabea, baita sagardoaren kulturen murgiltzeko ere.

[Gehiago irakurri +](#)



Ibilbidea tren berdean

Tren berdea hartu eta herrian zehar paseo polit bat emateko aukera Hernaniko hainbat pasartetan oinarritutako grabazio bat entzunaz.

[Gehiago irakurri +](#)



Bisita gidatua hirigunean

Erdi Aroko Hernani ezagutu nahi? Gidaren azalpenak garai hartara eramango zaituzte: armariak, dorretxeak, garaiko gizartearen bitxikeriak...

[Gehiago irakurri +](#)

EZAGUTU HISTORIA

- HIRIGUNE HISTORIKOA

EZAGUTU NATURA

- HERNANIKO IBILBIDE SAREA

EZAGUTU KULTURA

- SAGARDOA

BIZI EZAZU HERNANI

- PROPOSAMENAK

- SANTA BARBARA GOTORLEKUA
- COMÈTE SAREA | 1941-1944
- GERRA ZIBILA: FUSILATZEAK HERNANIN
- SANTA BARBARA MENDIA
- NERE BORDA PARKE BOTANIKOA
- SANTA BARBARA ESKALADA ESKOLA
- URUMEA IBAIA
- DONE JAKUE BIDEA
- AZERI DANTZA
- URTEKO AGENDA

Turismo informazioa. Nafar kalea, 18 (Biteri). 20120 Hernani | Telefonoa: 943 33 70 28 | e-posta: [gurutze-a\[abildua\]hernani.net](mailto:gurutze-a[abildua]hernani.net)